

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**10/2019 Mozioa, otsailaren 13koa, Arabako Foru Aldundiari eskatzeko hartu ditzala behar diren neurriak abian jartze aldera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 33/2013 Foru Araua aldatzeko foru arauan jasotako laguntza-lerro berriak**

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko otsailaren 13an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

10/2019 Mozioa, otsailaren 13koa, Arabako Foru Aldundiari eskatzeko hartu ditzala behar diren neurriak abian jartze aldera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 33/2013 Foru Araua aldatzeko foru arauan jasotako laguntza-lerro berriak.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote albait arinen onetsi ditzala behar diren foru-dekretu eta/edo xedapen arauemaileak abian jartzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua aldatzeko Foru Arauan jasotako laguntza-lerro berriak, zeina urtarrilaren 16ko Batzar Nagusien Osoko Bilkuran onartu baitzen.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote laguntza horietarako ahalik eta izapidetza errazena onetsi dezala, jasotzaile izan daitezkeneei eskaera eta beharrezko izapide guztiak errazte aldera. Ondorioz, Aldundik ez du eskatuko dagoeneko bere esku dagoen agiririk.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 13a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**